



Tximeleta

Cervinoko itzulia (St. Niklaus - Zer

Mikel Arrizabalaga

LAUROGEI urte bete dira euskal mendizale eta abenturazalea izan zen Andres Espinosak Mont Blanc eta Cervinoko tontorrek igotzea lortu zuenetik. 1929ko uztailaren 14an zapaldu zuen lehena eta astebete beranduago, uztailaren 20an, Cervinora bakarrik egindako lehenengo igoera burutu zuen. Gu, berriz, tontorrera igo gabe, mendi mitiko hau inguratzen duten Suitza eta Italiako haranetan murgildu gara astebetez.

Kontrastez betetako lurralde honetan, gailur garaiak, haitz zorrotzak, amaigabeko glaziarrak, izotzeko ezproiak, ibai emaritsuak, baso trinkoak eta landaretza ugari eta ederra mendizalearen begi ninietan txertatzen dira uneoro postal perfektua osatuz.

Zazpi egunetan zehar, mendi magalak zeharkatzen dituzten xenda eta haranak lotzen dituzten lepoak bilatu ditugu eta ondo balizatutako bideetan barna, Matteredal, Turtmanntal, Val d'Anniviers, Val de Moiry, Val d'Arolla, Val d'Herens, Valpelline eta Valtournenche haranetako herri txiki eta lurrek osatzen duten ikuskizun paregabeaz gozatu dugu.

*“Paisaia bada poema ere,
inola ere ez da mutu;
nori bere estrofa diotsa
harmoniatsu bezain altu.”*


BITORIANO GANDIAGA
“IZADIMNEZ”



SUITZA
ITALIA

■ Taldea Valtournencheko haran aldera jaisten

matt)



MAPAS NORDIK

1. etapa

St. Niklaus (1.127 m) - Gruben (1.818 m)
Desnibela: 1.818 m (igo) 1.123 m (jaitsi)
Denbora: 7 ordu 35'

St. Niklauseko tren geltokiaren ondoan (1.127 m) eman diogu hasiera lehen etapari, trenbidea zeharkatzen duen tunelean agertzen diren bide-seinaleek adierazten duten norabidean. Ilaran, gogotsu ekin diogu lehen maldari basoak eskaintzen duen itzalpean. Ordu pare bat pasatxo behar izan dugu Jungu auzora (1.958 m) iristeko eta bertan dagoen iturriko urez zintzurra ondo freskatu eta kantinplorak bete ondoren, aurrera egin dugu. Telekabinaz igotzerik badago ere, merezi du bidea oinez egitea.

Basoko itzala utzi eta *alpage* (*) ederrak zeharkatzen dituen xendan barrena sigi-sagan egin dugu gorantz. Pixkanaka mendizaleen ilara luzatuz doa eta lehen nekeak agertu bezain fite, gain batean atsedena hartzea erabaki dugu (2.488 m). Indarrak berreskuratzen ditugun bitartean paisaiatz gozatzeko aukera ederra izan dugu. Talaia honetatik zabaltzen den ikuspegia paregabea da eta laster utziko dugun *Mattertal* haranaren alboetara goititzen diren laumilakoen sinfoniak gure begirada erakarri du: *Saas* bailara aldera *Nadelhorn* (4.327 m), *Lenzspitze* (4.294 m), *Dom* (4.545 m), *Taschhorn* (4.491 m)

(*) **Alpage**: udan behiak edo ardiak bazkatzeko erabiltzen diren goi mendiko pentzeak izendatzeko Alpeetan erabiltzen den hitza da.



■ Augstbordpass leporantz ilaran



Mendiko
arnica

eta *Alphubel* (4.206 m) mendien gailur eta glaziarrak, eta eskuin aldetik, berriz, *Bishorn* (4.153 m) eta *Weisshorn* (4.506 m) mendietakoak. Haranaren magaletan barreiatzen diren herriei azken begirada eman eta martxan jarri gara.

Augstbordeko haran txikian sartu gara aurrean dugun izen bereko lepo aldera abiatuz. Erreka aldera jaisten doan xenda deserosoa gertatu zaigu, leku harritsuua da eta kontu handiz egin dugu aurrera. Kantinplorak errekan urez bete eta lepora igotzeko azken maldak pikoari ekin diogu. Indarrak geroz eta urriagoak dira eta erritmoa moteldu behar izan dugu. Batzuk lehenago, besteak

beranduago, baina azkenean *Augstbordpass* lepora (2.894 m) igo gara. *Turtmantal* ibar aldera metro batzuk jaitsi eta hamaiketako ederra egin dugu.

Gaurko etaparen azken zatia betetzeko bi taldetan banatu gara. Lehenengoak abiada azkarrean egin du beheara, bigarrenak lasaia goa hartu duen bitartean. Bide-seinaleak segituz zirku handi bat osatzen duten larreak zeharkatu ditugu eta hauek amaitzean, bideak *Gruben* herrira (1.818 m) eraman gaitu. Suitzako ikurrin handi bat atarian duen *Waldesruh* jatetxe-aterpean hartu dugu ostatu. Dutzatu eta goiz afaldu dugu, bertako jabeak hala eskatuta, abuztuaren 1ean suitzarren Aberri Eguna baita. Iluntzean, aterpearen parean su handia piztu dute, San Joanetan euskaldunok egin ohi dugun moduan. Suaren argia logelako (*dortoir*) leihotik sartzen da, baina egunaren nekeak lozorroan utzi ditu gehienak, esnatzeko.

2. etapa

Gruben (1.818 m) - Zinal (1.675 m)
Desnibela: 1.190 m (igo) 1.337 m (jaitsi)
Denbora: 7 ordu 20'

GOIZ iratzarri eta gosaldur ostean, motxila astunak bizkarreratu eta gaurko etapari ekin diogu. *Turtmantal* harana hodei artean ezkutatu zaigu eta ez dugu aukerarik izan bere edertasunaz gozatzeko. *Gruben* herria (1.818 m) atzean utzi eta erreka igaro bezain pronto, *Forcletta* eta *Meidpass* lepoetara daramaten bideen artean aukeratu behar izan dugu. Bigarrena, eskuinetik ateratzen dena hartu eta maldan gora ia ordubete behar izan dugu *Meide Mittlere Stafeleko* goiko etxolen ondora heltzeko (2.334 m). Ibarriari begira jarri gara *Bishorn* (4.153 m) eta *Weisshorn* (4.506 m) mendi garaiekin tontorrak ikusteko itxaropenez, baina hodeiekin ezkutaketetara jolasean aritu eta une batzuetan baizik ez dira azaldu.

Ondo balizatutako bidea jarraituz, elurtegiek utzitako laku txiki batzuk ikusi ditugu, *Meidsse* izeneko lakua (2.661 m) nabarmentzen delarik. Eguraldiak beltzera jo du, aurrean dugun gailurreria *Val d'Anniviers*etik datozen hodeiekin estali da eta haizeak azkar mugitzen ditu. Xabierrek zamarrak jantzeko aholkatu digu eta halaxe egin dugu. Laino artean murgildu, ilaran jarri eta astiro astiro *Meidpass* lepora (2.790 m) igo gara. *Val d'Anniviers*ek ongi etorri kaxkarra eman digu.

Zerua geroz eta beltzago, euri xehea txingor bihurtu da eta bat-batean zerua lehertu zaigu. Tximistek eta trumoi hotsek hartu dute ibar osoa. Xenda erreka bihurtu da eta belarra zapalduz abiada areagotu egin dugu zerutik datorren erasotik



■ *Meidpasseko* lepoa igarotzen laino artean

ihesi. *Armina* lakua (2.562 m) eskuinean utzi eta jaitsiera luze baten ondoren *Weisshorn* hotel (2.337 m) ezagunaren atarira iritsi gara. Motxilak eta zamarrak sarreran utzi eta jangelako mahai luze baten inguruan eseri gara *potage* batek gure barrenak epelduko dituelakoan. Garagardoz lagundirik hamaiketako bikaina egin dugu eta animoak altxatzeko eta indarrak berreskuratzeko balio izan digu.

1.882an eraikitako hotel zaharrari agur esan eta *Zinal* aldera doan xendari heldu diogu. Atertu du. Gure mendean *Val d'Anniviers*eko magaletan barreiatutik hamaika herri eta auzo txiki laino artean agertuz. Haranaren paraleloan doan bidea luzea da, berdea, makina bat lore eta landarez beterik, hamaika kolore eta formaz jantzirik. Lorategi naturala eta aparta. *Barneuzako alpagea* (2.211 m) atzean utzi eta beste bi ordu pasatxo behar izan ditugu *Zinal* herrira (1.675 m) jaisteko. Bidea luzea gertatu zaigu baina azken zatian gozatu egin dugu, eguraldi kaxkarra izan arren mendi hauek ez dute bere xarma galtzen. *Alpina* aterpea beteta dago eta *Le Trift* hotelera bidali gaituzte. Ohiko lanak (dutzatu, arropak garbitu...) burutu, herria bisitatu, afaldu eta lotara.



Aster alpinum

3. etapa

Zinal (1.675 m) - Moiry (2.249 m)
Desnibela: 1.161 m (igo) 587 m (jaitsi)
Denbora: 4 ordu 40'

IRATZARRI orduko, leihoan esekita utzitako arropak jaso eta gosaltzera jaitsi gara. Hamaiketako egiteko ogia erostera joatean eguna goibel datorrela ohartu gara. Ez da euririk baina hodei eta behe lainoek ia dena estaltzen dute. Eguerdiko eguraldiak hobetuko duelakoan trasteak hartu eta gaurko etapari hasiera eman diogu.

■ *Alpagean zehar Val d'Anniviers* aldera





■ *Sorebois* leporantz taldea ilaran

La Navisence errekaen beste aldera pasa eta ohi bezala aldapan gora jarri gara. Basoan hezetasun handia dago eta lehen izerdi tantak berehala hasi dira kopetatik irristatzen. Zenbait tartetan aldapa pikoa da eta bezperan izandako ekaitzak lurra busti eta labankorra utzi du. Sigi-sagan marrazten den xenda jarraituz, basotik atera eta zintzurra freskatzeko lehen atsedena hartu dugu. Eski pistetara doan bide zabala jarraitu dugu laino artean *Soreboiseko* kafetegiaren ondora iritsi arte (2.438 m). Atzera begiratu eta aukera izan dugu une batez *Bishorn* eta *Weisshorn* mendien gailurrak hodei artean ikusteko.

Oraindik lauhun metro falta zaizkigu lepora iritsi eta *Val d'Anniviersi* agur esateko. Eski pista zabalak segituz gorantz egin dugu ilaran, isilik. Jabik eta biok bide zuzena hartu dugu eta gora heldu aurretik lau hudoï jolastirekin egin dugu topo. Beraien gordelekuaren inguruan sartu-irtenean dabilta, harrapaketatara jolastu nahi balute bezala. Graziosoak oso. Metro batzuk aurrerago taldekideekin elkartu eta denak batera *Col de Soreboisera* (2.836 m) iritsi gara. Gertu inguruko paisaia behatzeko talaia paregabea den *Corne de Soreboiseko* tontorra (2.896 m), baina fresko dago eta atzera begiratu gabe *Val de Moiry* aldera jaisten hasi gara, urak turkesa kolorea duen lakuaren ondoan dagoen *Chalet du Barrage* aldera.

Alpagean zehar xenda nabarmena hartu eta beherantz egin dugu haranaren beheko aldetik lainoa azkar sartzen hasi delarik. Aterpera heldu aurretik, ezkerrean utzi dugu *Moiryko* glaziarrera doan bidea. Gorputzean dugun hezetasunaren sentsazioa kendu nahian, azkar bete dugu aterperainoko bidea (2.249 m). Barrura sartu, zamarrak eta botak kendu eta jangelan dauden besaulki erosoetan jarri gara. Atsedena nahi baino luzeagoa gertatu zaigu, euria hasi du eta lainoak ibar osoa bere mende hartu du.



Elur lorea

■ Atsedena laku txiki baten ondoan

Goizean erositako ogia eta etxetik ekarritako janaria *Valaiseko* ardo zuriarekin batera jarri ditugu jangelako mahaiaren gainean eguneko bazkaria egiteko. Goxo dago barrenean, kanpoan, berriz, umel. Orduak pasa ahala eguraldiak ez du hobera egiten eta azkenean amore eman behar izan dugu, ezingo dugu *Moiryko* glaziarra ezagutzeko genuen asmoa burutu. Arratsaldean bestelako planak: irakurri, musean... Afaltzeko orduan, aterpeko arduradunak hurrengo egunetarako meteoaren iragarpenak eman dizkigu: eguraldi bikaina izango omen dugu lagun. Hala bedi!

4. etapa

Moiry (2.249 m) - Arolla (2.006 m)
Desnibela: 1.221 m (igo) 1.464 m (jaitsi)
Denbora: 7 ordu 30'

GAUR eguraldiak ez du aitzakiarik. Iragarpenak guztiz bete dira eta eguzkiaren izpiak mendi garaien tontor eta magaletan barreiatzen hasi dira goizean goiz. Urtegiaren beste aldera igaro, pista zabala jarraitu eta gorantz egin dugu oso animoso. *Val d'Herensera* pasatzeko dauden bi lepoetako batera igo beharko dugu, aukeran: *Col de Tsatè* edo *Col de Torrent*. Guk azken hau aukeratu dugu. Urtegitik aldentzen goazen heinean, bezperan ikusterik izan ez genuen *Moiryko* glaziarra agertu zaigu, ederra, *Grand Cornier* (3.962 m) eta *Dent Blanche* (4.357 m) mendien gailurrak beste askoren artean nabarmentzen direlarik. Marmoten txistu hotsak nonahi. *Torrenteko alpagean* dagoen borda batean taldearen argazki ofiziala egin eta ondo taxututako bidea segituz aurrera egin dugu.

Lac des Autannesera (2.686 m) erraz iritsi gara eta bertatik aise antzeman dugu lepora doan bidea. Denak batera abiatu bagara ere, sakabanatuta heldu gara *Col de Torrentera* (2.916 m). Gurutzearen ondoan dagoen talaia bi ibar ederren ikuspegiak gozatzeko aukera ederra izan dugu. Mokadutxo bat jaten dugun bitartean, igo berri dugun *Val de Moiryri* azken begiratu eman eta gure mendean harro bezain dotore agertu zaizkigun *Val d'Herens* eta *Val d'Arollari* so geratu gatzazkie. Aurrez aurre mendi bikainak ikusi ditugu, *La Pleureur* (3.704 m), *Mont Blanc de Cheillon* (3.870 m) eta *Pigne d'Arolla* (3.796 m) besteak beste. Mendi garaietatik esekita dauden magaletan egurrez eraikita dauden ohiko etxeak, auzoak, herrixkak. Postal bikaina!

Gustura gaude, baina beherantz egiteko tenorea iritsi zaigu. Lehen zatia, harri tartean trakets samarra suertatu zaigu, baina berehala iritsi gara larre zabaletara. Lepoan izan dugun panoramika apenas galdu gabe eta bide-seinaleek erakusten duten norabidea jarraituz, erraz egin





■ Taldea
Col de
Torrenten

dugu maldan behera *Villa* herrira (1.670 m). Taldeko kide gehienek *Arollaraino* autobusez joatea pentsatu dute, oraindik geratzen den bidea luzea baita. Xabier eta biok, berriz, ibilaldia oinez egitea erabaki, *La Sage* herria atzean utzi eta azkar batean *Les Haudères* (1.452 m) herrira jaitsi gara. Bero dago eta *Arollara* doan azken malda luzeari ekin aurretik, garagardo fresko baten laguntza bilatu dugu. Ordubetik pasatxo behar izan dugu *Arolla* herria baino kilometro bat lehenago dagoen *Hôtel-Restaurant Aiguille de la Tza* aterpera (1.892 m) heltzeko. Duxa eder bat eta gero, zerbait pikatu eta herria bisitatzera joan gara.

Egun ederra eta paraje zoragarriak!

5. etapa

Arolla (2.006 m) - Prarayer (2.005 m)
Desnibela: 1.205 m (igo) 1.206 m (jaitsi)
Denbora: 7 ordu 45'

IZULIA hasi aurretik aterpean utzitako piolet, kranpoi eta sokeak zamatu dute gure motxila eta nabaritu dugu. Errepidea amaitu eta aparkalekua atzean utzita, pista zabala jarraitu dugu aurrean *Mont Collon* (3.637 m) dugularik. Errekaren beste aldera pasa eta aldapa igotzen hasi gara xenda nabarmena jarraituz. *Bas Glacier d'Arolla* gure eskuinera laga dugu. Harri tartean altuera irabaziz *Plan de Bertolera* (2.664 m) iritsi gara. Bada ordu pare bat abiatu garela eta taldeko kide guztiak elkartu bitartean atsedean txiki bat hartzea erabaki dugu. Gaur, zorionez eguraldi bikaina dugu eta horrek glaziarra igarotzen lagunduko digu.

Haut Glazier d'Arolla glaziarrean sartu aurretik aldapa txiki bat jaitsi behar izan dugu. Xabierrek ez sakabanatzeko eskatu digu, ezustekoak sahieste aldera (pitzadurak baitaude), elkarrekin, ilaran glaziar osoa pasa arte mantentzea komeni dela azpimarratu du. Eta halaxe egin dugu, gure botek izotza zapaltzean ateratzen duten hotsek isiltasuna apurtzen dutelarik.

Xabierrek markatutako bidetik (tripode zuri-urdinak daude) gorantz egin dugu, emeki emeki, zenbait lekutan izotza dago eta. Ez dirudi zaila denik, baina honelako parajeetan erne ibili beharra dago beti, edonon pitzadura batekin topo egin baitezakegu. Kranpoirik jarri gabe *Col Collonera* (3.087 m) igo gara, Suitza eta Italia arteko muga. Erdi jelatuta dagoen laku baten ertzetik pasa eta metro batzuk aurrerago, eguneko atsedetik luzeana egitea erabaki dugu. Motxilak arindu nahian soberan dugun janaria eta



Kukulorea

■ *Haut Glazier d'Arolla* zeharkatuz



edaria konpartitu dugu. Italiako isurialdeak ez du zerikusirik *Arollakoarekin*, elur eta izotzeko parajeak bat batean desagertu eta harrizko magalen erreinuan murgildu gara. Zuria eta marroia.

Behean ikusi dugun *Nacamuli* aterpe aldera jaisten hasi gara eremu harritsu eta deserosoan zehar. Aterperaino joan gabe haranera jaisten den xenda hartu dugu. *La Combe d'Oreneko* paraje hauek oso malkartsuak dira eta nekez egin dugu aurrera. Beherago bidea leundu da eta paisaia aldatuz doa. Landareak eta loreak ugaritzearekin batera animoak berpiztu eta indarrak berreskuratu ditugu. Borda pare baten ondotik pasa eta beheko larreetara iristean gertu ikusi dugu *Lago di Place Moulin*, gaurko helmuga gertu dugun seinale. Azken bordaren ezkerretik ateratzen den xendatik basoan murgildu eta berehala ikusi dugu *Prarayer* aterpea (2.005 m). Azken metroak eguzkiaren berotan bete ditugu.

Ondoren, ohikoak: dutxatu, arropak garbitu, irakurri, garagardo freskoa edan eta lagun artean solasean egon. Iluntzean, berriz, zerbitzarien irribarre eta txantxen artean afari oparoa. Gaurkoan ere ederki ibili gara!

6. etapa

Prarayer (2.005 m) - Breuil/Cervinia (2.006 m)
Desnibela: 1.314 m (igo) 1.313 m (jaitsi)
Denbora: 8 ordu 30'

BAPO gosaldu ondoren eta eguraldi ona lagun, gogotsu ekin diogu gaurko etapari. Aterpearen ondoan dagoen ibilaldien seinaleen multzoan 12 zenbakia duena aukeratu, errekarra jaitsi, egurrezko zubitik ezker aldera pasa eta poliki poliki *Combe de Valcournerantz* igotzen hasi gara. Basoan zehar sigi-sagan erraz irabazi dugu altuera eta lehen *alpagera* iristean bide harritsua leundu egin da tarte batez. Ordeka txiki batera iristean, goi aldera begira jarri eta aurrean dugun paretara gaindiezina dela iruditu zaigu. Bakoitzak bere errotua hartu eta igotzen hasi gara. Sigi-sagan marrazten den bidetik magalaren lehen zatia nahikoa ondo gainditu dugu, baina berehala hasi dira zailtasunak; arroketa jarritako burdinezko zurubiak edo eskalak zapalduz eta katean laguntzaz lortu dugu zatirik delikatuena eta arrisksutsunea gainditzea. Atzera begiratu eta taldea sakabanaturik datorrela ikusi dugu.

Izerdi patsetan iritsi gara "pareta bertikal" honen gain aldera, baina berehala ohartu gara oraindik dezente igoera geratzen zaigula leporaino. Zintzurra freskatu eta azken zatia igotzeari ekin diogu. Oso gogorra dagoen elurtegi txiki pare bat gainditu dugu, baina azkenaren oinera iristean hau eskuinetik inguratu eta han-hemenka barreiatu dauden bide-seinaleak jarraituz ingurune harritsuan sartu gara. Ez da erraza aurrera egitea, aldapa oso pikoa da eta zaila suertatu zaigu bide ona aurkitzea. Astiro astiro metroak irabazi ditugu eta azkenean lortu dugu *Col de Valcournera* (3.066 m) ailegatzea.

Eguzkiak gogor jotzen du eta behean ikusi dugun *Vuillermoz-Perucca* aterpera bazkaltzera jaitea erabaki dugu. Lehen malda pikoa da eta elurrez estalirik dago. Xabierrek soka bat lotu du destrepea egiteko lagungarri gerta dakigun. Aterpean (2.910 m) bazkaldu eta gero, lakua gure ezkerrean utzi eta *Balanselmoko* lakurantz jaisten hasi gara. *Urrutiago Lago di Cignanaren* urak larre berdez inguratutik. Jaitsiera luzea da, baina eroso. Ur-jauzi baten ondotik pasa eta ondo taxututako bidean barna, comba pare bat

■ *Lago di Cignana*



igaro eta *Chevalier alpagearen* ondora (2.312 m) iritsi gara. Gure ezkerrera dagoen *Finistra di Cignana* lepora (2.441 m) igotzeko erritimoa aldatu behar izan dugu, moteldu. Lepora heltzean ikuspegi berri bat zabaldu zaigu, *Valtournenche*ko harana aurrez aurre, baina Cervino-Matterhorn mendi mitikoa ikusteko lepoa utzi eta aurrerago jo behar izan dugu. Azkenean, *Breuil-Cervinia* herri alpinoa inguratzen duen zirkoan bere silueta nabarmenduz agertu zaigu, harro, dotore!

Panoramika errepikaezin honetaz luze gozatu ostean, xenda eroso jarraitu eta *alpage Galoren* (1.953 m) ondoan dagoen iturrira iristean kantimplorak bete ditugu. Basoaren itzalean murgildu gara *Perrères* herrira jaisteko. Ibaiaren paraleloan doan bideak *Breuil / Cervinia* utzi gaitu (2.006 m), *Fosson* hotelean aterpea hartu dugularik. Etapa gogorra, ederra eta ikusgarria!



Gentiana

Gustura gaude baina oraindik bide luzea dugu *Zermatteraino*. Iltarri jarri eta igotako bidetik behera egin dugu. *Testa Grigiara* itzuli beharrean *Theodulpasserantz* (3.317 m) jo dugu ohiko bidetik igo diren lagunekin elkartzeko. Suitzako lurretan sartu gara eta urtzen ari den elurtegi batean zehar *Trockener Stegera* (2.939 m) jaitsi gara. Taldekide batzuk teleferikoa hartu eta herrira jaitsi diren bitartean, besteok oinez egitea erabaki dugu. Jaitsiera luzea da baina *Mattertal* haranera zabaltzen den ikuspegiak gure nekeak arindu ditu. *Furin* (1.829 m) hartutako garagardoa lagun, *Zum See* (1.733 m) herri tipikora iritsi gara, polita oso. Turistak bazter guztietan, herria gertu dagoen seinale. Azkenean sartu gara *Zermatteko* kaleetan. Amaitu da bira.

Aztera begiratu eta azken begi-kolpea eman diot *Cervino-Matterhorn*eko ipar aurpegiari eta imajinatzen saiatu naiz orain laurogei urte Andres Espinosak egindako balentria. Ikaragarria! ☐

7. etapa

Breuil / Cervinia (2.006 m) - Theodulpass (3.317 m) - Zermatt (1.606 m)

Desnibela: 1.311 m (igo) 1.711 m (jaitsi)
Denbora: 8 ordu

Testa Grigia (3.480 m) - Breithorn (4.165 m) - Zermatt (1.606 m)

Desnibela: 685 m (igo) 2.559 m (jaitsi)
Denbora: 8 ordu

AZKEN etapa egiteko bi taldetan banatu gara. Talde batek ohiko bidea hartu eta *Zermatteraino* joango da, bigarrena, berriz, *Testa Grigiara* (3.480 m) teleferikoz igo ondoren, *Breithorneko* gailurra zapaltzen saiatuko da. *Theodulpassen* elkartuko dira.

Teleferikoak *Testa Grigian* (3.480 m) utzi gaitu, eski pisten ondoan. Iltarri jarri eta elur gogorra zapalduz lehen aldapa pikoa igotzen hasi gara. *Plateau Rosan* kontu handiz ibili gara eskiatzaileen jaitsiera azkarrak eta teleaulkien pasoa saihestuz. *Klein Matterhorn* (3.820 m) teleferikoaren parera iristean, mendizale andana ikusi dugu *Breithornplateau* zeharkatu eta gailurrera iristeko azken aldapa igotzen. Hauek utzitako arrastoak jarraituz, itsaso zuria zeharkatzen hasi gara zirkuluerdia marratzuz, isilik, poliki, urduri. Malda gogortzen hasten den lekuan, arnesa eta kranpoiak jarri, sokaz lotu eta pioleta hartuta bi kordadatan banatu gara, bata laukoa eta beste, berriz, hirukoa. Ez dirudi igoera zaila denik, baina komeni da beti erno ibiltzea eta urratsez urrats aurrera egitea, presarik gabe eta seguru.

Aldaparen lehen metroak bete eta ezkerretik zuzentzen den igoerari heldu diogu. Beherantz datozen mendizale batzuekin gurutzatu eta sigi-saga txiki batek gailurraren aurretik dagoen maldaren zatirik pikoena gainditzen lagundu digu. *Breithorneko* tontorrean (4.165 m) jende asko dago, baina denentzat bada lekua. Gutako batzuek igotzen duten lehen laumilakoa da eta pozik daude, nabaritzen zaie. Argazki mordo atera eta paisaiatz gozatzeko aukera izan dugu. *Pöllux* (4.092 m) eta *Castor* (4.228 m) mendi ezagun eta ederrak, *Dent Blanchetik* *Weisshorn*eraino doan mendikatea, *Monte Rosako* mazinoa... eta nola ez, *Cervino* edo *Matterhorn*en piramide zorrotza.

■ *Breithorneko* azken metroak, sokakideak iltarri jarrita



ARGAZIAK MIKEL ARRIZABALAGA

Taldea

Mendiak eta Herriak antolatutako ibilaldi honetan parte hartu duten taldekideak:

Ekain Sardon, Goio Jaka, Agustin Apaolaza, Maria Angeles Clemente, Baleren Bakaikoa, Maite Erro, Fernando Imaz, Silvia Armenteros, Roberto Casasempere, Jabi Gonzalez, Mikel Arrizabalaga eta Xabier Erro, azken hau taldeko gidari.

Bibliografia

Tour del Cervino. Cándido Muñoz. Desnivel, 2006.
Tour of Matterhorn. Hilary Sharp. Cicerone guide, 2006.
Tour du Cervin-Giro del Cervino-Tour Matterhorn (Gida eta mapa). 1:50.000. Rotten Verlag, 2007.
Schweiz/Italien. Matterhorn-Rundweg: Tour du Cervin. Iris Kürschner. Taschenbuch, 2004.

Kartografia

Kompass 1:50.000
- Zermatt - Saas Fee (117)
- Val d'Anniviers: Montana - Val d'Herens (115)
- Breuil - Cervinia - Zermatt (87)
Topographische Landeskarte der Schweiz - swisstopo (Suiza)
- 274 Visp 1:50.000
- 283 Arolla 1:50.000
- 284 Mischabel 1:50.000
- 293 Valpelline 1:50.000
- 1307 Vissoie 1:25.000
- 1308 St. Niklaus 1:25.00
- 1327 Evolène 1:25.000
- 1328 Randa 1:25.000
- 1347 Matterhorn 1:25.000
- 1348 Zermatt 1:25.000
Istituto Geografico Centrale (IGC Italia)
- 108 Cervino Matterhorn - Breuil Cervinia - Champoluc 1:25.000
Tour du Cervin-Giro del Cervino-Tour Matterhorn (Gida eta mapa). 1:50.000. Rotten Verlag, 2007



■ Mitxoletak

Web guneak

Herriak, haranak, meteo, aterpeak...
<http://www.tourducervin.ch>
<http://www.zermatt.ch>
<http://www.taesch.ch>
<http://www.randa.ch>
<http://www.st-niklaus.ch>
<http://www.matterhornvalley.ch>
<http://www.graechen.ch>
<http://www.turtmanntal.ch>
<http://www.sierre-anniviers.ch>
<http://www.zinal.ch>
<http://www.arolla.com/>
<http://www.saint-luc.ch>
<http://www.grimentz.ch>
<http://www.evolene-region.ch>
<http://www.herens-vacances.ch/>
<http://www.meteosuisse.admin.ch>
<http://www.randonnee.ch>
<http://www.wanderleiter.ch>
<http://www.chez.com/hotelweisshorn/>
<http://www.wandelpaden.com/Rubrik8m.html>
<http://www.vs-wallis.ch/italy/huetterz/teodulo.html>
<http://www.comune.valtournenche.ao.it>
<http://www.cervinia.it>
<http://www.montecervino.it>
<http://www.rifugio-prayer.it/>
<http://www.rifugioperuccavuillemoz.it/>
<http://www.rifugionacamuli.it/>
<http://www.regione.vda.it>